

SSIFF 

**Donostia Zinemaldia
Festival de San Sebastián
International Film Festival**

Jasangarritasuna ebaluatzeko eta karbono-aztarna neurtzeko txostena 2023

sansebastianfestival.com

 #71SSIFF

Babeste Ofiziala
Patrocinador Oficial
Official Sponsor

rtve

Media Partner

M+

Laguntzaile Ofizialak
Colaboradores Oficiales
Official Collaborators



k
kutxabank

Instituzio Kideak
Instituciones Socias
Associated Institutions



Euzko Foru Aldundia
Diputación Foral de Guipúzcoa

EUSKADI
BASQUE COUNTRY





SSIFF

Donostia Zinemaldia
Festival de San Sebastián
International Film Festival

Babesle Ofiziala
Patrocinador Oficial
Official Sponsor



Media Partner



Laguntzaile Ofizialak
Colaboradores Oficiales
Official Collaborators



Instituzio Kideak
Instituciones Socias
Associated Institutions



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

EUSKADI
BASQUE COUNTRY



Aurkibidea

01. Sarrera	4
02. Helburuak	4
03. Metodologia	4
04. Prozesua	5
05. Neurketa	6
• Ostatatzea	7
• Mugikortasuna	8
• Materialak	10
• Cateringa	11
• Energia	12
• Hondakinak	13
• Ura	14
06. 70. eta 71. edizioen konparazioa	15
07. Ondorioak	17
08. Hurrengo urratsak	18



01. Sarrera

Donostia Zinemaldiak, ingurumenarekin duen konpromiso irmoa dela eta, 2023ko irailaren 22tik 30era bitartean egin zen 71. edizioko karbono-aztarnaren neurketari eta ingurumen-jasangarritasunaren ebaluazioari buruzko txostena egin du.

02. Helburuak

Txosten honen helburua da ingurumenaren gaineko inpaktua neurtzea, eragin horrek ekitaldiaren inguruko jardueran izan ditzakeen 1., 2. eta 3. mailako irismenetan.

Emisioen jatorria eta kausa aztertu dira, eta zenbait ondorio atera dira, ingurumen-inpaktua murrizteko lan egiten jarraitu ahal izateko eta epe ertainerako plan bat eratu eta, horrela, erakundeari hurrengo edizioetan eboluzionatzen jarraitzeko estrategia zehatz bat emateko.

03. Metodologia

Karbono-aztarna neurtzeko, CREAMS teknologia erabili da. Teknologia horrek GHG-CO₂eq neurketa-protokoloa baliatzen du, Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioaren (MITECO) emisio-faktore ofizialak erabili. Bestalde, MITECOk oraindik emisio-faktorerik esleitu ez dizkien datuak kalkulatzeko, Nazio Batuen Klima Aldaketari buruzko Esparru Hitzarmenaren (UNFCCC) emisio-faktore ofizialak ere baliatu dira.

Karbono-aztarnaren kalkuluak honako hauek hartzen ditu kontuan: 1. mailako irismenekoak (zuzeneko isurketak), 2. mailako irismenekoak (Zinemaldiak kontsumitutako eta erositako elektrizitateak sortutako zeharkako emisioak) eta 3. mailako irismenekoak (zeharkako emisioak edo Zinemaldiko balio-katetik datozen eta Zinemaldiaren kontrolpean ez dauden emisioak).

Prozesu osoak Europako UNE-EN ISO 14067:2019 arauak (*Berotegi-efektuko gasak. Produktuen karbono-aztarna. Kuantifikaziorako eskakizun eta jarraibideak*) neurketetarako ezartzen duen kalitate-bermea betetzen du.

Datu guztien frogak eta trazabilitatea hodeian biltegitratuta geratzen dira, araudi horrek eskatzen duen bezala, segurtasun handieneko irizpideen arabera; era berean, erakundeak soilik eskura ditzake, eta erakundeak egoki irizten dion guztietan argitara ditzake.



04. Prozesua

Zinemaldiko langileen, hornitzaileen, erakunde laguntzaileen, babesleen, pertsona akreditatuen eta Creast sarearekin beharrezko informazioa eta dokumentuak partekatu dituzten egoitza guztien lankidetzari esker egin da Zinemaldiaren 71. edizioko karbono-aztarnaren kalkulua.

Horri guztiari esker, Creastek karbono-aztarnaren kontzeptuan adierazi ahal izan ditu datuak. Hain zuzen, datu horiek Creast metodologiak lan-esparrutzat dituen 7 emisio-kategorietan sailkatutakoak dira, eta neurketaren atalean ageri dira zehaztuta.

Datu erreal guztiak atzitzea ezinezkoa izan den kasuetan, jarraian zehaztutako hipotesiak eta baiespenak ezarri dira neurketa osatzeko.

Hornitzaileen kasuan, antolatzaileen laguntzarekin, formularioak bidaltzen zaizkie Zinemaldia hornitzen duten enpresei, haien jardueren irismena aztertzeko. Elkarrizketa horiek informazio-truke batekin osatzen dira, eta, haietan, hornitzaileek erabilitako materialen inbentarioak, egutegiak eta beste dokumentu batzuk entregatzen dituzte, beren jardueraren inpaktuaren neurketa zehazteko.

Informazio horrekin guztiarekin, hornitzaileen mapa deritzona egiten da, eta horren analisiak kontratazioek sortutako emisioak kalkulatzeko aukera ematen du. Azterketa horretan, kontuan hartzen dira hornitzaileak bere jarduera egiteko behar dituen hoteleko edo beste establezimendu bateko ostatu-gauak, bere lana egiteko behar duen mugikortasuna, lanaldietan kontsumitzen duen janaria eta edaria, erabiltzen dituen materialak eta sortzen dituen hondakinak, eta bere zeregina betetzeko kontsumitzen duen energia.

Jaialdiak bederatzi egunean erabiltzen dituen **egoitzei** dagokienez, horietako bakoitzean egiten den energiaren eta uraren kontsumoari buruzko informazioa bidaltzen dute arduradunek, eta, horrez gain, egoitza bakoitzerako formulario espezifikoak betetzen dituzte. Zinemaldiaren aurretik eta ondoren kontagailuak irakurrita, bakoitzaren energia-kontsumoa zein den jakiten da. Egoitzaren batek informazioaren zati bat eman ezin izan duen salbuespenetan, datua zenbatetsi egin da, aurreko edizioaren historikoa eta antzeko ezaugarriak eta agenda dituzten erakundeekiko konparazioa kontuan hartuta.

Babesleei dagokienez, posta elektronikoko bidez elkarrizketa egin zaie elkarlanean aritzeko eskaintza egin duten eta beren babesletza-jardueraren karbono-aztarnaren neurketa osatzeko informazioa eman duten Zinemaldiaren enpresa babesle guztiei. Karbono-aztarna globalari egiten dioten ekarpenaren batezbestekoa kategorien arabera egin da eta, kalkulu horretatik abiatuta, beren ingurumen-inpaktuari buruzko informazioa eman ezin izan duten babesleei estrapolatu zaie.

Azkenik, **dokumentazio grafikoari** dagokionez, bai Zinemaldiaren antolatzaileek bai Creast taldeak (Zinemaldiaren 71. edizioan hiru eguneko egonaldia egin zuen) argazkiak egin dituzte, txosten honetan zehazten den guztia jasota uzteko, edizio horretako jarduerari eta instalazioei dagokienez. Dokumentazio hori hodeian jarri da, behar izanez gero, handik eskuratzeko.



05. Neurketa

Atal honetan erakusten da Zinemaldiaren 71. edizioa egin ahal izateko garatutako ekoizpen-jarduerak igorritako karbono-aztarna neurtzeko lanaren azken emaitza.

Lehen aipatu bezala, Creast metodologiak emisioak honako 7 kategoria hauetan sailkatzen ditu, monitorizazioa hobetzeko:

Guztizko karbono-aztarnaren banakapena, emisio-kategorien arabera:

Ostatua:

1.740.831,66 kg CO₂eq (1.740,832 tona CO₂eq)

Mugikortasuna:

1.576.761,21 kg CO₂eq (1.576,76 tona CO₂eq)

Materialak:

123.718,92 kg CO₂eq (123,72 tona CO₂eq)

Catering:

77.829,79 kg CO₂eq (77,83 tona CO₂eq)

Energia:

29.865,59 kg CO₂eq (29,87 tona CO₂eq)

Hondakinak:

7.030,13 kg CO₂eq (7,03 tona CO₂eq)

Ura:

456,16 kg CO₂eq (0,46 tona CO₂eq)

Guztira:

3.556.493,46 kg CO₂eq. (3.556,49 tona CO₂eq)

Kategorien banakapenaren xehetasuna:

Zinemaldiaren emisio-iturri nagusia mugikortasuna eta ostatua dira, hau da, bizilekutik kanpo bidaiatzeak dakarren inguruabarra eta hiri barruko joan-etorriak. Bi kategorien artean karbono-aztarnaren % 96,40 osatzen dute.



Ostatatzea

Ostatu hartzearen karbono-aztarnak ekarpen handia egiten dio Zinemaldiaren guztizko karbono-aztarnari. Ostatuaren esparruak barne hartzen ditu hotel batean ostatu hartzearen ondoriozko jarduera guztiek sortutako emisioak (gela eta eremu komunak argiztatzeko eta igogailuak eta ate automatikoak mugitzeko erabiltzen den energia; garbiketa-zerbitzua, logelen zerbitzua barne; hotelak bere bezeroen eskura jartzen dituen materialen erabilera –ohea eta izarak, telebista, xaboiak eta abar–). Hala, material horiek guztiak ekoizteko prozesuak aintzat hartzen dira eta beren balio-bizitzan izango duten erabilera zenbatetsiaz zatitzen dira.

Ostatuei buruzko informazioa biltzeko, Zinemaldiak gonbidatuentzat erreserbatutako hotel-gauen zerrenda bat ematen du, eta horrek ingurumenean duen eragina kalkulatzeko balio du.

Akreditaziorik gabeko ikusleen % 20 penintsulako beste toki batzuetatik etortzen dira Zinemaldira, eta hirian hartu behar dute ostatu. Horrela, batez beste, bi ostatu-egun esleitzen zaizkie pertsona horiei (guztira, 72.000 ostatugau).

Guztia urtez urte eguneratzen diren emisio-faktoreetan jasotzen da.

Guztira:

1.740.831,66 kg CO₂eq. (1.740,83 tona CO₂eq)

Ostatu-emisioak, bertaratuen profilaren arabera:

Zinemaldiak gonbidatuak: 109.642,41 kg CO₂eq.

Zinemaldiak gonbidatutako prentsa akreditatua: 14.490,54 kg CO₂eq

Babesletzak: 863,01 kg CO₂eq

Akreditatuak: 17.0795,7 kg CO₂eq

Akreditaziorik gabeko ikusleak: 1.445.040 kg CO₂eq

Creast enpresak proposatzen duenez, jarduera honen jasangarritasuna hobetzeko, ostatueta jasangarritasun-neurriak hartu behar dira, ostatatzearen ingurumen-efizientzia hobetzeko.

Hori gauzatzea ez dagoenez zuzenean Zinemaldiaren esku, Creastek zenbait gomendio egin ditu: eskuragarri dauden hotel-eskaintzak sakon ikuskatzea, erakunde horiek kontzientziaztea eta, Zinemaldiaren jasangarritasuna hobetzen lagunduko duten neurriez gain, hiriko ingurumen-inpaktua urtean zehar hobetzen lagunduko duten neurriak iradokitzea.



Mugikortasuna

Mugikortasuna da, ostatuarekin batera, Zinemaldiaren emisio-iturri nagusia. Mugikortasunak, halaber, emisio-faktore ofizialetan islatzen ditu ibilgailuak erabiltzeak dakartzan jarduera guztiak, hala nola erregaiak erretzea, hegaldi batean bezeroari arreta emateko zerbitzua, mantentze-lanetako jarduerak, etab. Faktore horiek urtero argitaratzen dira eguneratuta, eta desberdinak izaten dira erabilitako ibilgailuaren arabera.

Mugikortasunari buruzko datuak lau multzotan bana daitezke: erakundeak kontratatutako mugikortasunari buruzko datuak, pertsona akreditatuen mugikortasun generikoari buruzko datuak, hornitzaileei eta babesleei buruzko mugikortasun-datuak, antolakuntzako kideen mugikortasun-datuak eta Zinemaldiko ibilgailu ofizialen erabilerari buruzko datuak.

- **Zinemaldiak gonbidatutako pertsonak:** Antolatzaileek kontratatutako mugikortasunari buruzko informazioa lortu da, bai hegaldiei buruzkoa, bai bestelako ibilgailuen kontratazioari buruzkoa, antolatzaileek beraiek emandako inbentarioen bidez.
- **Pertsona akreditatuak:** Pertsona akreditatuen mugikortasunari buruzko informazioa *online* akreditazio-prozesuan egindako borondatezko inkesta batetik dator. Inkesta horretan eskuratutako mugikortasun-kasuistika akreditaziorik gabeko ikusleei estrapolatu zaie, eta kanpo uzten dira hegazkinez egindako joan-etorriak, publikoaren proportzio oso txiki bat dela ulertzen baita.
- **Babesleak eta hornitzaileak.** Babesleen kasuan, mugikortasunari buruzko datuak eman zituzten zuzeneko elkarriketen bidez eta/edo mezu elektronikoak trukaturik beren burua horretarako eskaini zutenekin, eta lagin hori gainerako babesleei estrapolatu zaie. Hornitzaileen kasuan, online-formularioak bete zituzten beren mugikortasuna zehazteko.
- **Antolatzaileak:** Antolakuntzako kideen mugikortasuna langile guztiei 2022an egindako inkestatik abiatuta kalkulatu da.
- **Zinemaldiaren ibilgailu ofiziala:** Zinemaldiko ibilgailu ofizialen erabilerari buruzko informazioa kilometro-kontagailuei ateratako argazkien eta ibilgailu kopurua eta modelo deskribatuta dauden zerrenden bidez eman zen.

Guztira:

1.576.761,21 kg CO₂eq. (1576,76 tona CO₂eq)

Mugikortasunaren emisioak, erabiltzaile-profilaren arabera:

Akreditatuak: 451.346,29 kg CO₂eq

Gonbidatuak: 104.458,55 kg CO₂eq

Hornitzaileak: 14.841,73 kg CO₂eq

Akreditaziorik gabeko ikusleak: 997.381,08 kg CO₂eq

Babesleak: 4.395,78 kg CO₂eq

Egoitzak: 78,24 kg CO₂eq

Antolatzaileak: 3.511,35 kg CO₂eq

Zubeldia Rent: 748,20 kg CO₂eq

La Bicicleta: 0 kg CO₂eq



Mugikortasuna

Mugikortasunak pertsona asko bertaratzea errazten du. Creastek garraioaren ingurumen-efizientzia hobetzeko proposatu du erakundeak ibilgailu efizienteak alokatzea eta erakundearen esku ez dauden gainerako garraio-bideak ikuskatzea, eta Zinemaldiaren jasangarritasuna hobetzen duten garraio-bideen alde kontzientziatu eta dibulgazioa egitea. Garrantzitsua da Zinemaldira jendea bertaratzea sustatzen jarraitzea, eta, era berean, ahalik eta ondoen informatzea ekitaldira ingurumen-kontzientzia horrekin joateko.

Zuzenean Zinemaldiaren mende dauden bidaien eta gonbidatuentzat erosten direnen edo erakundeko kideek urtean zehar egiten dituztenen inguruan, Creastek gomendatzen du epe ertaineko estrategia bat lantzea, jatorrizko eta helmugako eskualdeen arabera lekualdatzeko eskuragarri dauden aukerak sakon ikuskatu ondoren, eta, hala, gonbidatuen mugikortasun-politika bat ezarriko da garraioaren efizientzia hobetzeko.

Mugikortasun-estrategia horrek lehentasuna eman behar dio trenari hegazkinaren gainetik, ahal den guztietan, eta ingurumenaren aldetik eraginkorrenak diren aire-konpainiak aukeratu behar dira, trenaren ordezko aukera bideragarria ez denean. Aire-konpainiak jasangarritasun-neurri garrantzitsuak hartzen ari dira, esaterako, bioerregaiak erabiltzea edo hegaldi bakoitzaren karbono-aztarna konpentsatzea. Urtero eguneratuko da aire-konpainia guztien sailkapena, ingurumen-efizientzia kontuan hartuta.

Lurreko garraioari dagokionez, Zinemaldiko garraio-flotaren ingurumen-efizientzia hobetzen jarraitzen da, karbono-aztarna murrizteko, eta erakundeko langileak kontzientziatzeko lan egiten da, oinez, bizikletaz edo garraio publikoan mugitzea hauta dezaten.



Materialak

Hirugarren emisio-iturria materialen erabilera da. Materialen emisio-faktoreak ugari dira, hala nola lehengaia erauzteko prozesua, ekoizpen- eta fabrikazio-prozesua, saltokietara banatzea eta abar.

Antzeko ekitaldietan gertatzen den bezala, Zinemaldian material asko kontsumitzen da. Atal honetan sartzen dira, besteak beste, seinaletikarako, sustapenerako eta irudirako erabilitako materialak.

Guztiaren batezbestekoa urtez urte eguneratzen diren emisio-faktoreetan zehazten da. Faktore horien aplikazioa desberdina da material berrietarako edo erositakoetarako eta berrerabilitako edo alokatutako materialetarako; izan ere, haien ingurumen- inpaktua zatitu egiten da material horrekin egingo den erabileraren batez besteko zenbaki batez.

Guztira: 123.718,92 kg CO₂eq. (123,72 tona CO₂eq)

Jatorriaren arabeko banakapena:

Kursaal: 1.104,33 kg CO₂eq

Babesleak: 4.955,12 kg CO₂eq

Proveedores: 117.659,48 kg CO₂eq

Material motaren arabeko banakapena:

Ehunak: 33.227,40 kg CO₂eq

Plastikoa: 8.443,93 kg CO₂eq

Papera / kartoia: 19.268,52 kg CO₂eq

Zura: 4.699,54 kg CO₂eq

Metala: 57.967,41 kg CO₂eq

Beira: 112,12 kg CO₂eq

Materialen ingurumen-inpaktua murrizteko estrategia bat egiteko, beharrezkoa da erabilitako material guztiak ikuskatzea, eta material horien ordezkioak edo bestelako erabilera batzuk aurkitzea, haien karbono-aztarna murrizten laguntzeko.

Zinemaldiak denbora asko darama ildo horretan lanean, eta, 2023ko edizioan, paper inprimatuaren kopurua murrizten jarraitu du, eskuz bozkatzeko prozesuen ordezketa digitala ezarri eta argitalpenen kopurua murriztuta.

Horri gehitu behar zaio hainbat euskarri dohaintzan eman dituela, berrerabil daitezzen.



Cateringa

Zinemaldiaren esparruko ekitaldietan eskainitako elikagaien eta edarien kontsumoak sortutako karbono-aztarna da ingurumen-inpaktua hobetzeko jorratzen den beste kategoria bat.

Elikagaien ondoriozko emisioetan, produktuen ekoizpen-eta banaketa-prozesuekin lotutako faktore ugari hartzen dira kontuan, hala nola barazkiak hazteko edo animaliak hidratatzeko behar den ura eta produktua salmenta-puntura eramateko garraioa; izan ere, faktore askok parte hartzen dute haien ondoriozko ingurumen-inpaktuan. Horren guztiaren batezbestekoa egiteko, emisio-faktoreak erabiltzen dira. Azkenok desberdinak izaten dira elikagaien eta edarien tipologiaren arabera, eta urtero eguneratzen dira.

Antolatzaileek Zinemaldiko jaietako eta ekitaldietako catering-zerrenda bat eman dute, bai egoitza nagusietan, bai beste egoitza batzuetan. Catering horietako batzuen menuak aurrez jakinda, horien batezbesteko bat egiten da, eta programatutako catering bakoitzera joaten den parte-hartzaile kopurua ezaguna da. Datuek horiek hartuta, janariaren eta edariaren kontsumoa zenbatetsi da.

Zinemaldiak eskatzen dizkien zerbitzuak behar bezala betetzeko lan-jardunaldietan kontsumituko diren elikagai eta edariak zenbatetsi dituzte hornitzaile guztiek. Zenbatespen hori formularioen bidez eta dokumentuak bidalita lortzen da, eta egiaztatzen da zenbat pertsonak lan egiten duten eta zenbat lanalditan. Kontsumoen kopuru horiekin kalkulatu da karbono-aztarna.

Babesleen sustapen-ekintzetan parte hartzen duten langileek kontsumitzen duten janari eta edariak ere kalkulatu dira, babesleek helarazten duten informazioa oinarritzat hartuta. Batezbesteko hori karbono-aztarna neurtzen lagundu ezin izan duten gainerako babesleei estrapolatzen zaie.

Cateringa:

77.829,79 kg CO₂eq. (77,83 tona CO₂eq)

Banakapena, jabearen arabera:

Zinemaldiak programatutako cateringak: 62.204,45 kg CO₂eq

Hornitzaileak: 10.980,92 kg CO₂eq

Babesleak: 4.644,42 kg CO₂eq

Creast enpresak menuei eta lehengaiaren jatorriari buruz auditoretza sakon bat egiteko proposamenari eusten dio, 0 kilometroko produktuan oinarritutako epe ertaineko estrategia bat prestatze aldera; hau da, helburua da lehengai guztia tokikoa izatea, joan-etorriak saihestuz, eta tokiko ekonomia sustatzea. Proposatzen du elikagai guztiak sasoikoak eta bidezko merkataritzatik eratorriak izatea, eta haien ekoizpen-prozesuek jasangarritasuneko jardunbide egokiak erabiltzea.

Era berean, garrantzitsua da eskaintzen den dieta orekatua eta osasungarria izatea eta, produktuen tipologiaren balantze egokiari esker, elikagaien ekoizpen-prozesuekin lotutako emisioak mugatzea. Adibidez, haragi-produktuen erabilera murrizteak, nutrizio-balio proportzional eta arrazoizkoa emanez, elikadurarekin lotutako emisioak mugatzen lagun dezake, eta ekitaldietara joaten direnek ez dute zertan aldaketa handirik sumatu eskaintza gastronomikoan.



Energia

2023ko Donostia Zinemaldirako energiaren emisioek bi iturri nagusi dituzte: egoitzetako energia elektrikoa (jatorri berriztagarriko berme gabeko merkaturatzailea) eta ekitaldian kontratatzen den ekipo elektrogenoaren kontsumotik ateratzen diren energia-datuak.

Sorgailuak erabiltzen duen erregaia zenbatespenetik aurrera kalkulatu da, potentziaren eta erabilitako ordu kopuruaren arabera, eta beti erregai-proportzio berak erabilia.

Energiaren kasuan, Creastek honako iturri hauen bidez lortu ahal izan du informazioa:

- **Egoitzak.** Zinemaldiaren aurretik eta ondoren kontagailuak irakurritik kontsumoa zein den jakin daiteke. Formularioak ere bete dituzte, Zinemaldiari egotz dakiokeen beraien jardueraren zatia ezagutarazteko. Egoitzaren batek informazioaren zati bat eman ezin izan duen salbuespenetan, datua zenbatetsi egin da, aurreko edizioaren historikoa eta antzeko ezaugarriak eta agenda dituzten erakundeekiko konparazioa kontuan hartuta, hala nola zinema-aretoa.
- **Hornitzaileak.** Formularioetan eta haiek emandako dokumentuen bidez gailuak, makineria eta erremintak erabiltzearen gainean duten kontsumoa kalkulatu da. Dokumentu horietan, Zinemaldia prestatzeko, gauzatzeko eta desmuntatzeko jarduera kontatzen dute.
- **Catering.** Bataplan, Dabadaba, Bruinoise, Ixo Restauración, Sukaldean Aitor Jatetxea, Sharma Ausolan SLU, Terzi Café eta Zazpi Gastrobar SL establezimenduetan, besteak beste, antolatutako catering eta ekitaldien energia-kontsumoa zenbatetsi da. Horretarako, Creasten Big Data aplikatu da, zeinak ehunka ekitaldiren batezbestekoa egiten baitu, jarduera bakoitzaren tamainaren arabera, ekitaldi horien magnitudea ikusleen kopuruaren eta gertatu ziren lekuaren neurrien arabera neurtuz.

Azkenik, ekitaldi edo jairen bat hartu duten beste leku batzuen ingurumen-inpaktua neurtu da. Neurketa hori egiteko, ekitaldiaren tamaina (bertaratuen kopurua) eta Creast enpresaren Big Data hartu dira oinarritzat. Azken horrek ehunka ekitaldiri buruzko informazioa dauka, eta karbono-aztarna zenbatets dezake, energia- eta ur-kontsumoari buruzko informaziorik izan gabe.

Energia: 29.865,59 kg CO₂eq. (29.87 tona CO₂eq)

Egoitzen eta emisioen jabeen arabeko banakapena:

Kursaal: 3.121,86 kg CO₂eq

Tabakalera: 3.466,15kg CO₂eq

San Telmo: 5.246,75 kg CO₂eq

Victoria Eugenia: 7.602,25 kg CO₂eq

Belodromoa: 262,25 kg CO₂eq

Sade zinemak: 3.513,00 kg CO₂eq

Donostia Kultura Vea: 22,25 kg CO₂eq

Ergobiako biltegia eta Martuteneko biltegia: 64,00 kg CO₂eq

Babesletzak: 6.427,08 kg CO₂eq

Zaharberritzea: 85,96 kg CO₂eq

Hornitzaileak: 54,04 kg CO₂eq

Energiaren kontsumoa, hein batean, erakundearen jardun-eremuaren barruan dago, batzuk Zinemaldia egiteko bakarrik alokatzen baitira. Jardun-eremua erabatekoa den guztietan helburua da epe ertaineko estrategia bat planifikatzea, energia-kontsumoa murrizteko eta kontsumitutako energia iturri % 100 berriztagarrietatik datorrela bermatzeko.



Hondakinak

Hondakinen ingurumen-inpaktuak ez ditu emisio gehiegi sorrarazten, baina inpaktu handia du ingurumenean epe ertain eta luzean. Zinemaldiko antolakuntzak egoitza guztietan sortutako hondakinen pisua jasotzen duen txosten bat aurkeztu du.

Hala, Creasten Big Data oinarritzat hartuta, mahaikide bakoitzeko hondakinen batezbestekoa honako hauetan egindako ekitaldiei aplikatzen zaie: Bataplan, Dabadaba, Bruinoise, Ixo Restauración, Sukaldean Aitor Jatetxea, Sharma Ausolan SLU, Terzi Café eta Zazpi Gastrobar SL –ekintza horietako bakoitzera joan ziren mahaikideak zehazten dituen inbentarioan oinarrituta–. Bestalde, pertsona eta egun bakoitzeko sortutako hondakinen batezbestekoa aplikatzen da, Creasten Big Dataekin, hornitzaileen eta babesleen jardueran parte hartzen duten langileek sortutako hondakinak kalkulatzeko, tartean dauden pertsonen kopurua eta haiek lana osatzeko behar duten denbora zein den jakinda, datu espezifikoak eman ez duten kasuetan, formularioen bidez.

Hondakinak: 7.030,13 kg CO2 eq. (7,03 tona CO2eq)

Egoitzen eta emisioen jabeen arabera banakapena:

Kursaal: 1.572,58 kg CO2eq

Tabakalera: 5,50 kg CO2eq

San Telmo: 68,23 kg CO2eq

Victoria Eugenia: 1.066,65 kg CO2eq

Belodromoa: 87,62 kg CO2eq

Hornitzaileak: 374,3 kg CO2eq

Babesleak: 6,47 kg CO2eq

Miramar: 486,28 kg CO2eq

Donostia Kultura Antzoki Zaharra: 66,11 kg CO2eq

Antzerkia: 486,28 kg CO2eq

Topaguneko 2: 0,3 kg CO2eq

Beste jai-leku batzuk: 2.809,83

Hondakinen emisioak, tipologiaren arabera:

Plastikoa: 13,23 kg CO2eq

Papera: 3.206,50 kg CO2eq

Kristala: 9,43 kg CO2eq

Organikoa: 3.801,03 kg CO2eq

Beira: 9,43 kg CO2eq

Nabarmentzekoa da Zinemaldiak hondakinak kudeatzeko talde bat duela, egoitzetan behar bezala seinaleztatutako birziklatze-puntuak instalatu dituena. Ekipoa bizikletaz mugitzen da eta egoitzetan sortutako hondakin guztiak pisatu ditu egunero, eta bereizi egin ditu behar bezala birziklatzeko.

Sortutako hondakinak murrizteko epe ertaineko estrategia bat lantzen jarraitzen da, erabilitako materialekin lotuta. Halaber, birziklatze egokia hobetzen jarraituko da; batez ere, edukiontzien erabilera egokiaren inguruan kontzientziatuko da eta sortutako hondakinak murrizten dituzten jardunbide egokien jarraipena egingo da.



Ura

Ur-kontsumoa ia ez da islatzen karbono-aztarnaren adierazlean, haren balio-kateak ia ez baitu emisiorik sortzen. Alabaina, ondasun preziatu horren kudeaketa oso garrantzitsua da Zinemaldia antolatzeko orduan, eragin positiboa baitu ingurumenean.

Kontsumitutako ur kantitateak barne hartzen du hala garbiketarako nola higienarako eta kontsumo pertsonalerako erabiltzen den ura.

Zenbatesten da egunean bi litro ur kontsumituko direla hornitzaileen eta babesleen jardueran parte hartzen duen pertsona bakoitzeko, Zinemaldian zehar jarduerak prestatzen, gauzatzen eta biltzen diren bitartean. Kontsumitutako ur kantitate osoa karbono-aztarnaren kontzeptuan adierazten da, egoitzetako ur-kontsumoa gehitzeaz gain kontagailuak irakurri ondoren. Karbono-aztarnaren kalkulua kontsumitutako litro kopuruan oinarrituta egiten da. Datua ematen duten egoitzetako kontsumoei erreparatuta, gainerako egoitzen batez besteko kontsumoa kalkulatu da, egoitza horien jarduera eta ezaugarriak kontuan hartuta. Mahaikide bakoitzeko, batez beste, bi litro ur ere kalkulatu dira antolatutako ekitaldi eta jai guztietarako, kontsumitutako ur kantitate osoa kalkulatzeko eta karbono-aztarnaren kontzeptuan adierazteko.

Ura: 456,16 kg CO₂eq. (0.46 tona CO₂eq)

Egoitzen araberako banakapena:

Kursaal: 84,28 kg CO₂eq

Tabakalera: 1,72 kg CO₂eq

San Telmo: 3,78 kg CO₂eq

Victoria Eugenia: 43,00 kg CO₂eq

Belodromoa: 31,99 kg CO₂eq

Sade zinemak: 284.83 kg CO₂eq

Donostia Kultura Vea: 0,96 kg CO₂eq

Babesletzak: 2,59 kg CO₂eq

Hornitzaileak: 1,14 kg CO₂eq

Prentsa: 0,25 kg CO₂eq

Aquam: 1,61 kg CO₂eq

Kontsumitutako ura, guztira: 1.326 m³

Ur-kontsumoaren efizientzia hobetzen jarraitzeko, Creastek azpimarratu du kontzientziazioa sustatuko duen estrategia bat lantzeko garrantzia, pertsona bakoitzaren ohiturekin zuzenean lotuta dagoelako eta Zinemaldiak parte-hartzaile eta bertaratu guztien laguntza behar duelako arlo hori hobetzeko.



06. 70. eta 71. edizioen konparazioa

Zinemaldiak aspalditik dihardu ingurumen-jasangarritasunaren bere kudeaketa hobetzen. 2022 eta 2023 urteen artean, Zinemaldiko karbono-aztarnaren murrizketan eragin positiboa izan duten eta etorkizunean hobetzen jarraitzeko oinarritzat balio duten neurriak inplementatu dira.


Jarraian, 2023an inplementatutako neurri nagusiak zehaztu dira. Neurri horien emaitzek haien eraginkortasuna egiaztatzen dute eta, era berean, etorkizunean jorratzen jarraitu beharreko bidea erakusten dute. Hona hemen horietako zenbait:

- **Paper-inprimaketa.** Paperaren erabilera-murrizteari esker, 1,67 kg CO₂eq murriztea lortu dela kalkulatu da. Neurrietako bat izan da Zinemaldiko paperezko katalogoa haren bertsio digitalaz ordeztzea.
- **Alfonbra gorri birziklatua eta birziklagarria.** Hirugarren urtez jarraian, Gipuzkoako Foru Aldundiko Jasangarritasun departamentuak 1.840 m²-ko moketa jarri du Zinemaldiaren esku, % 100 birziklatua eta birziklagarria, Kurasaaleko eta Victoria Eugenia antzokiko kanpoko alfonbra gorrietarako. Ekimen horri esker, 2.334,74 kg CO₂eq murriztea lortu dela zenbatetsi da.
- **Kurasaaleko argiztapena.** Eraikina piztuta egoteko orduak gutxitu dira. Kalkulatu da, gutxi gorabehera, 30,23 tona CO₂eq murrizten direla.
- **Ekipo elektrogenoa.** 71. edizioan, Zinemaldiak bioerregai bidez elikatu du edizioaren amaierako festako ekipo elektrogenoa.
- **LED argiztapena.** Zinemaldiak 2021ean hasitako LED argiztapenerako trantsizioa egiten jarraitu du.
- **Birziklatze-estazioak.** Bigarren urtez jarraian, ondo seinaleztatutako birziklatze-estazioak ezarri dira egoitzetan. Zenbatesten denez, behar bezala seinaleztatutako birziklatze-estazio nahikoak ezartzeak erdira murrizten du hondakinen karbono-aztarna.
- **Ibilgailu ofizialen flota.** Audik, Zinemaldiko ibilgailu ofizialak, ibilgailu mistoen flota bat eskaintzen du. Flota horren 1/3 ibilgailu hibrido osatua dago, eta beste 1/3, ibilgailu elektriko. Mota horretako ibilgailuak erabiltzaileek 33 tona CO₂eq (33.368,4 kg CO₂eq) inguru murrizten direla kalkulatu da. Gainera, 71. edizioan, bilketa-zerbitzuek 96.500 kilometro egin dituzte, aurreko edizioan baina gutxiago; izan ere, orduan 120.000 kilometro egin zituzten, gutxi gorabehera.

- **Konpentsazioa.** Zinemaldiko karbono-aztarnaren % 84 konpentsatuko da Naturklimak kudeatzen duen Gipuzkoako borondatezko karbono-funtsaren bidez. Funts hori Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiari atxikita dago.

Jarraian, 70. eta 71. edizioen arteko konparazioa erakusten da (biak Creasten kontura), Jasangarritasun Planeko aplikatutako neurrien bilakaera ikusteko. Neurri horiek epe laburreko, ertaineko eta luzeko helburuak dituzte, eta, beraz, lan jarraitua da, non Zinemaldirako eta jasangarritasunerako jokalekurik onenak baloratzen baitira:

1. grafikoa. Zinemaldian aztarna murrizteko aplikatutako neurriak



Zinemaldian aztarna murrizteko aplikatutako neurriak izeneko 1. grafikoa ikus daitekeenez, CO₂eq emisioen diferentziarik esanguratsuen **ostatuak** kategorian dago, 2023koa 2022ko edizioa baino handiagoa baita, ostatu-gauak areagotu direlako.



06. 70. eta 71. edizioen konparazioa

Materialak kategorian % 84 murriztu dela zenbatesten da: kategoria horrek izan du murrizketarik handiena. Ehuneko hori esanguratsua da, eta Zinemaldian erabilitako material gehienak bigarren eskukoak eta alokairukoak izatearen ondorioa da.

Hurrengo kategoria **energia** da. Hor, aurtengo edizioan emisioak % 38 murriztu direla ikusten da. Horren arrazoia da Kursaal egoitzak aldatu egin duela datuaren iturriko kotizazio- eta informazio-modalitatea, eta 2022an goranzko tarifa finko bat izatetik 2023an xehetasun espezifikoko bat izatera igaro dela.

Energia kategoriaren atzetik daude **hondakinak** (% 25 murriztu da) eta **catering** (% 10 murriztu da) kategoriak. **Mugikortasuna** kategoriaren kasuan, % 5eko murrizketa kalkulatzen da.

Horrek guztiak erakusten du, guztira, emisioak % 14 murriztu direla Zinemaldiaren 71. edizioan, 2022ko 70. edizioarekin alderatuta.

Azkenik, eta **hots-kutsadurari**¹ eta argi-kutsadurari dagokionez, azpimarratzekoa da lehenengoaren inguruan Donostia Zinemaldiak ez duela inolako arriskurik eragin ingurumen mailan, hiri-ingurune batean gertatzen baita, ezta gizarte mailan ere, egiten diren ekitaldiak erabilera horietarako egokitutako espazioen barruan egiten baitira. Argi-kutsadurari² dagokionez, ekitaldi gehienak barruko espazioetan egiten dira, eta, beraz, ez da aurreikusten ingurunean asaldurarik sortzea. Bestalde, edizio honetan antzeko agenda bat gauzatu denez, kutsadura hori ez da aldatu, Kursaal pizteko ordutegi-murrizketa izan ezik, eta hori hobekuntzatzat kontuan hartzeko modukoa da.

¹ Hots-kutsaduratzat jotzen da ingurunean zaratak edo bibrazioak egotea, horiek eragiten dituen igorle akustikoa edozein dela ere, baldin eta pertsoneri, haien jardueri edo edozein motatako ondasunei eragozpenak, arriskuak edo kalteak eragiten badizkiete, edo ingurumenean ondorio esanguratsuak eragiten badituzte. (Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioa).

² Argi-kutsadura gaueko zero naturalaren distira-hondoa areagotzea da, argiztapen artifiziala dela-eta argia sakabanatu eta islatzearen ondorioz. Argi artifizialaren areagotze horrek ingurune hartzailearen propietateak asaldatzen eta aldatzen ditu. Argizatze xede ez den ingurune hartzaile bati eragiten dion edozein argiztapen artifizial ere argi-kutsaduratzat jotzen da. (GenCat, Ingurumena eta Jasangarritasuna).



07. Ondorioak

Donostia Zinemaldia pertsona asko mugiarazten dituen ekitaldia da: antolakuntzako langileak, beste langileak, hornitzaileak, babesleak, gonbidatuak eta akreditatutako eta akreditatu gabeko publikoa. Antolatzaileek baliabide asko inbertitzen dituzte ekitaldira joaten diren pertsona guztiak esperientzia paregabeaz goza dezaten, 200 bat lan biltzen dituen film-programarekin, eta horien artean film luzeak, erdimetrajeak eta film laburrak aurki daitezke. Gainera, programa zinematografikoa jarduera osagarri ugarirekin osatzen da.

Horrek guztiak eragin handia du ingurumenean, eta, horregatik, ekitaldia, edizioz edizio, eraginkorragoa izan dadin lan egin behar da, nazioarteko zinemaldi presentzial batek dakarren izaerari uko egin gabe.

Txostenean hainbat aldiz adierazi den moduan, mugikortasunaren eta ostatuaren kategoriek dute ingurumen-inpakturik handiena, Donostiara iristeko garraioa behar duen hainbeste jende mobilizatzearen eta ekitaldira bertaratutako egunetan hirian lo egiteko ostatu-premiaren ondorioz.

Nahiz eta bi alderdi horiek Zinemaldiak eragin erlatiboa duen emisio-kategoria horien artean egon, eta biak modu naturalean eta Zinemaldira kanpo hobetzen joango diren (erregulazioa eta gizarte-etzabaida), Creastek gomendatzen du etorkizuneko edizioetako lana kategoriatan kontzentratzea, hobetzeko aukera handia baitago. Ekintzak bideratu beharko liriteke bertaratutakoak ibilgailu efizienteagoen erabileran kontzientziatuz, dauden alternatibei buruzko informazioa eman eta ekintza horien emaitzak monitorizatuz etorkizuneko edizioetan izango duten inpaktuari buruz.

Bestalde, garrantzitsua da aipatzea energia berriztagarrietarako trantsizioa Zinemaldiaren lehentasunetako bat dela. Gueuz argiak pizteko ordutegiak murriztu egin dira egoitza ezberdinetan, gailu efizienteagoekin ordezkatu beharreko etxetresna elektrikoak jarri dira, egoitza eta bulego guztietan LED teknologia jartzen ari dira beren argiztapen-iturrien ordez, energia gutxiago kontsumitzen baitute, eta Zinemaldiko egoitza guztiak betetzen dute jada energia-efizientziari buruzko lege-dekretu berria.

Donostia Zinemaldian materialen erabilerak altua izaten jarraitzen du, baina lanean ari dira paper-inprimaketak pixkanaka gutxitzeko, paperik eta plastikorik gabeko ekitaldi bat lortze aldera. Lanean jarraituko da gainerako materialen erabileraren efizientzia hobetzeko, material berriak erostearen aurrean berrerabiltzearen aldeko apustua eginez beti.

Janariaren eta edariaren kontsumoari dagokionez, Zinemaldiaren bederatzi egunetan ekitaldi ugari egiten direnez, logikoa da ingurumenean inpaktu handia izatea. Zinemaldiak urtez urte lan egiten du jarduera ingurumen-estandar egokietara egokitzeko, kantitateak neurtuz, soberakinak eta alferrikako hondakinak ez sortzeko, besteak beste.

Hondakinak bizikletaz mugitzen den barneko lantalde batek kudeatzen ditu, egoitza guztietan ondo seinaleztatutako birziklatze-guneak ezarri dira eta hondakinak bereizteko ahalegina egin da. Aurreko edizioeko esperientziaren ondoren, non Zinemaldiak zailtasunak izan zituen jendea edukiontzien erabilera egokiaz kontzientziatzeko eta hondakinen tipologia desberdinen birziklapena hobetzeko, aurrean indartu egin da komunikazio-estrategia.

Aurreko edizioan bezala, Creastek gomendatzen du etorkizuneko edizioetan uraren kontsumoa murrizteko lan egitea, baliabide preziatu horren kudeaketaren efizientzia hobetuko duten ekintzak bilatuz eta horren inguruko kontzientziazio soziala indartuz.



08. Hurrengo urratsak

Ingurumenarekiko konpromisoa indartzeko, Donostia Zinemaldiak beharrezkotzat jotzen du karbono-aztarna neurtzeko prozesua azkartzeko eta hobetzeko ekintzak egitea, ingurumenaren gaineko inpaktua modu progresiboan murriztea eta komunikatzeko duen gaitasuna erabiltzea gizartea klima-aldaketaren aurkako borrokan mugiarazteko eta inspiratzeko.

Horretarako, Creastek «Epe ertaineko jasangarritasun plana» izeneko bere proposamenari eusten dio, eta, bertan, datozen urteetan jarraitu beharreko estrategia jasotzen du.

Ingurumenaren gaineko inpaktua murrizte aldera, edizioz edizio bete beharreko mugarrak ezartzen dira, ekitaldiaren emisioak modu progresiboan murrizten joateko. Mugari horiei ekiteko, ekintza zehatzak planifikatzen dira, eta Zinemaldiaren antolakuntzak urtez urte inplementatuko ditu, ingurumen-inpaktua banakatzen den emisio-kategoria bakoitzean. Horrela, 2024an, Zinemaldiak ekitaldiaren barne-mugikortasunean eta erakarritakoan jarriko du arreta. Horretarako, kontzientziazio-kanpaina bat jorratzen ari da, akreditazioa duten eta akreditaziorik ez duten pertsonak garraio-aukera jasangarrienen alde egitera animatzeko, eta, horrez gain, kategoriatan horretako karbono-aztarnaren murrizketan zuzeneko eragina izango duten barne-neurriak lantzen ari da.